



ARRASATEKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiarengatik, udalerrri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatuko da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hauek egin dira:

- **Arrasateko Hiri Antolaketako Plan Orokorra (Akisoalde 11, Emanaldi 16 eta Ekutio 19 areetako etena bukatutzat ematea). Arrasateko Hiri Antolaketako Plan Orokorren aldaketa** (Diputatu Kontseiluak behin betiko onartua 2005eko abuztuaren 2an, eta GAOn argitaratua 2005eko abuztuaren 16an).



- **Arrasateko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa (Meatzarreka 37 eta Bizkaia etorbidea 39 areak)** (Diputatu Kontseiluak behin betiko onartua 2006ko urtarrilaren 24an, eta GAOn argitaratua 2006ko otsailaren 8an).
- **Arrasateko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa** (Diputatu Kontseiluak behin betiko onartua 2003ko apirilaren 8an, eta GAOn argitaratua 2003ko ekainaren 10ean).

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Lurzoru hiritarraren mugapena eta 105, 313, 521, 601, 809 eta 852 zona katastralen mugapena aldatu dira; 859 eta 860 zona katastralak deuseztatu dira; eta etxebizitzarako 606 eta 607 zona katastralak nahiz 861 eta 862 zona katastral industrialak sortu dira.

2.- Balio hauek eman zaizkie zona katastral berriei:

Zona Hirig. sailkapena Eraik. kostua (EK) Eragin erresid. balioa (BEE) Aparkam. mod. (MP)

606	HIRITARGAIA	510,86 €	324,31 €	8.414,17 €
607	HIRITARGAIA	510,86 €	324,31 €	8.414,17 €

Zona Hirig. sailkapena Eragin ind. balioa (BEI) Aparkam. mod. (MP)

861	HIRITARGAIA	225,38 €	6.010,12 €
862	HIRITARGAIA	225,38 €	6.010,12 €

3.- W azpizona katastrala esleitu zaie etxebizitzarako 606 eta 607 zona katastraletako kaleei edota kale tarteei.

**Fiskalitaterako eta Finantzatarako
Departamentua**

**Departamento para la Fiscalidad y las
Finanzas**

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Hacienda



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputación Foral de Gipuzkoa

Udal zergen Kudeaketa Zerbitzua
Servicio de Gestión de Tributos Locales

I. ERANSKINA

Lurzoru hiritarraren mugaketa planoa

II. ERANSKINA

Zona katastralen planoa